

EUSKARA PROBA C1

ULERMENA

1. ariketa: irakurri testua eta aukeratu erantzun zuzena.

Homeopatia, laharra eta sasia

Homeopatiari buruz dakidan gauza bakarra zera da: ez dakidala ezer ere. Ez nuen haren gaineko formakuntzarik jaso, ezta medikuntza fakultatean ezta ospitaleko prestakuntzan espezializatuan ere. Harrezkero, erakundeak lanaz zamaturik, ikasteko gogoia xahutu eta berrikuntzarako zirrikitu eskasak itxi zaizkit.

Labea ahotik berotzen da, eta ni ez naiz isilik egoten. Hitz egin, ezen praktikatu sekula ere ez.

Medikuntzak baditu bere oinarriak, zimenduak, garaian garaiko eta tokian tokiko paradigmak. Aginduak, arauak. Lehenik eta behin, eta garrantzitsuena, minik ez egitea da, *primum non nocere*. Arlo honetan, hogeita hamaika eskutik, homeopatiak Moisesen agindu zorrotza bete du, ez hil inor. Darabiltzaten pilulek nekez erasango dituzte alboko ondorioak, izan ere ura bera, bizitzaren muina, medikuon garunaren mamia, kolorerik, zaporerik, usainik ez duen hori, neurririk gabe hartuta arriskutsuagoa izan baitaiteke. Homeopatia ez baita mundu honetakoa. Medikuntza ofizialean jarduten dugunok kalte gehiago eragin ditzakegu gure ohiko tratamenduekin.

Bigarren agindua, eskura daukagun ebidentzia zientifikoan oinarritu behar dugula gure jarduna. Gure egunerokoan agintzen ditugun tratamendu eta prozedurek euren eraginkortasuna frogatu behar dute. Zentzu honetan, tratamendu homeopatikoez ez dute ezer frogatu; ez daukate inolako onurarik, plazebo efektuez harago. Onuragarria izan daiteke edonorentzat sinetsita baldin badago.

Dogmatikoa naizela ematen du, bata zuri fin bordatuaz jantzia; ezta pentsatu ere. Ez gaizki ulertu; medikuok ere noizean behin pentsamenduak josten ditugu.

Hirugarren agindua pazientearekiko harremana da: pertsona ardatz hartzen duena. Hortara homeopatia oso egokia izan daiteke,

sendagile eta pazientearen artean konfiantzazko harremana baldin badago. Lagun hurkoari laguntza eskain diezaioke sasi artean. Hori eredu tradizionalen ere gerta zitekeen, medikuari horretarako astia emango balitzaio, baina paziente bakoitzeko hamar minutu baino ez zaigu uzten sarri.

Homeopatia medikuntza tradizionalaren osagarria izan daiteke, euren kezkek, ardurak eta gogoia adierazi nahi duten horiei arreta eskaintzen badie. Maiz medikuntza ofizialak egiten ez duena. Azken batean osasun sistemaren hutsuneak agerian uzten ditu, aukera handirik gabe protokoloz protokolo eramango zaituen uhal garraiatzailea. Beste gauza bat litzateke gure jardueran pazienteekin behar eta merezi duten denbora emango bagenu, errespetuz eta parekotasunez harreman sendoa eraikiz. Jarraitutasuna funtsean. Beharbada ez genuke homeopatiarik, ez besterik beharko.

Homeopatia ez da kaltegarria, ez da arriskutsua, baina bihotzekoak jota zaudenean, ospitaleko atetik sartuko zara heriotzako sarreratik irteteko. Aitaren etxera bueltatuko zara, tratamendu egokiaren bila. Minbizia badaukat, hobe lehen baino lehen tenplura joaten banaiz; homeopatiak nekez lagunduko dit. Infekzio batek amilkatzen bazaitu, har ezazu antibiotiko bedeinkatua. Luzamendutan ibiliko zara, homeopatiaren magalean gerokoak geroko utziz, baina lehen baino berandu, gure etxean sartuko zara. Beldurra, medikuntzaren laharra.

Berria/ 2017-09-24 / Aitor Montes Lasarte - Medikua

1. Testuaren arabera, zer daki homeopatiak Aitor Montesek?

- a. Lanak uzten dizkion tarteetan bere kontura ikasi duen apurra.
- b. Zertxobait, lan egiten duen erakundeak behartuta.
- c. Bat ere ez, lanak ez diolako uzten ikasteko betarik.

2. Zer dio medikuntzak sortzen dituen kalteez?

- a. Kalterik ez egitea da homeopatiaren urrezko araua.
- b. Homeopatiak ere sortzen ditu kalteak.
- c. Ura homeopatia baino kaltegarriagoa izan daiteke.

3. Tratamendu homeopatikokoak eraginkorrak al dira Aitorren ustez?

- a. Ez, eta oinarri zientifikorik ez izatea leporatzen die.
- b. Plazeboek baino eragin txikiagoa dute.
- c. Ez, gaixoek hala sinetsi arren.

4. Zer jarrera du mediku honek homeopatiarekiko?

- a. Ez dio inolako onurarik aitortzen.
- b. Betiko medikuntzaren defendatzaile sutsua da, eta ez du besterik entzun ere egin nahi.
- c. Hausnartu izan du homeopatiatz.

5. Zer dio pazientearekiko arretaz?

- a. Eredu tradizionalen lehentasunezko gaia dela.
- b. Betiko medikuek ez dutela behar bezalako arreta ematen.
- c. Garrantzitsuena pazienteak sendagileengan konfiantza izatea dela, ez zenbat denbora eskaini.

6. Betiko medikuntza eta homeopatia osagarriak izan litezke?

- a. Ez litzateke homeopatiarik behar, medikuek behar bezalako arreta eginez gero.
- b. Bai, mediku tradizionalak onartuko balituzte beren hutsuneak.
- c. Horretarako homeopatak ere mediku izan beharko lukete, pareko izateko.

7. Gaixotasun larria izanez gero, zer dio?

- a. Homeopatiazaileenek ere ospitalera jotzen dutela berehala.
- b. Homeopatiarekin saiatzeak denbora galtzea eta tratamendua atzeratzea besterik ez dakarrela.
- c. Tratamenduaren ondorioak arintzeko balio dezakeela homeopatiak.

Erantzunak

1	2	3	4	5	6	7
C	A	A	C	B	A	B

2. ariketa: irakurri artikulua eta aukeratu erantzun zuzena.

Berrogei urte

Lozorroan netzan telebista marmartiaren parean. Eta entzun nuen zerbait —hitzen batzuk, musika egokiren bat...— ernarazi ninduen. Ongi burututako iragarki bat zen. Berrogei urte atzera joz, argazki bilduma eskuetan, iraganaren errepaso ari ziren gizonezko bat eta emakumezko bat. Aipagai izan zituzten 1977ko hauteskundeak. Ez ziren nolanhikoak botatzen zituzten esaldiak: «Politikariek uste izango dute, gainera, guretzat aski dela lau urtean behin botoa ematea...!». Belarriei argizaria kendu eta begiei emanda adi jarri nintzaion pantailakoari. Ez alferrik. Egungo jendartearen isla baino ez zen. Auto bat saldu nahi ziguten. Hibrido bat, oker ez banago. Hainbeste zeremonia horretarako! Dezepzio punttu bat. Zerbait gehiago itxaroten duzulako zure aldetik zerbait jarri eta aurreikuspenak, hurrik ere, betetzen ez direla jabetzean sentitzen duzun hori.

Aste honetan bete dira berrogei urte Espainian frankismo garaiko derrigorrezko etenaren ondoren hauteskundeak burutu zirela. Hirurogeita hamazazpiko ekainaren 15a zen. Eta oroitzenak geure gisara eta komenentziara moldatzen ditugun buztin pusketak direnez, datu objektiboak ere begiratu bat botatzea erabaki dut. Uneari ezin egokiago deritzot, berrogei urteko tartea izan baitzen Errepublikarekin azken hauteskundeak burutu zirenetik ordura — berrogeita bat eta hiru lau hilabete zehatzagoak izatera— eta beste hainbeste pasatu dira ordutik hona. Hala neukan oroimenean eta wikipediak arrazoia eman dit. Gaur egun harrigarri gertatzen bazaigu ere, astegun buruzurian burutu ziren hauteskunde haiek. Asteazkena zen, ez asteburua, ekainaren hamabost hura. Langileak baimen-orduak izango zituzten botoa ematera joateko. Orain, astegunez burutzeraz, ikusiko nuke zenbait nagusiren musajea langileak eskubide horri heltzeko unea iritsi zaiola eta badoala esatean. Ez nuen gogoan zenbateko parte-hartzea izan zen, eta datu horrek harritu egin nau. Espainian %79 joan zen botoa ematera, gehien-gehienak bizitzan estreinakoz. Hauteskundeak diren bakoitzean «demokraziaren festa» aipatzen dutenei ordutik honako parte-hartzearen jaitsiera jarriko nieke gustura begien aurrean. Eta bada beste datu bat ahaztu behar ez genukeena. Hauteskundeetan herriaren ahotsa islatzen dela esaten digute, baina orduko haietan ez zen hori guztiz egia. Diputatuen Kongresurako herriak aukeratu zituen ordezkariak, baina Senaturako ordezkarien bostetik bat Erregeak izendatu zituen

zuzenean. Franco hatsa luzatzen iaioa zen bezala zen nonbait Juan Carlos hatza luzatzen trebea.

Gainerakoan, 77ko hauteskunde haiek merezimenduak gauza bat direla eta botoen kopurua bestea erakutsi ziguten. Francoren alde nabarmen eta ez hain nabarmen aritutakoek osatutako koalizioak lortu zuen gehiengoa Espainian. Bigarren taldea PSOE izan zen, oposizioaren buruzagitza bereganatuz, Francoren aurkako borrokan hainbesteko agerraldirik egin ez bazuen ere. Alderdi Komunistakoak eta haien ezkerretara zeuden taldeak aurreko hamarraldietako lanaren ordaina behar hainbatekoa izan ez zen ustearekin geratu ziren. Hego Euskal Herrian, izan zen abertzale eta ezkerreko zirenen arteko eztabaida parte hartu edo ez. Batzuk joan egin ziren hautetsontzietara eta besteak ez. Nolanahi ere, Bizkaian eta Gipuzkoan botorik gehien lortuta, PNV-EAJ izan zen garaile. Orain ezustekotzat hartuko ez genukeena, orduan askorentzat hala gertatu zela onartu beharko da. Ustezko merezimendu eta boto kopuruaren arteko harremana oker ulertuta zebiltzan —genbiltzan?— nonbait hasiera hartan.

Hamabost urte nituen eta badut kez eta pipa janez osaturiko buruzagien arteko eztabaida erdi-klandestinoen oroitzapenik. Ordutik min eta ezin ugari pilatu dugu; dezepzio gehiegi; zorion eta umore une eder asko ere bizi izanak gara. Orduan atera zuten «berrogei urte eta gero hau!» leloak egun ere baluke zentzurik askorentzat. Kontu gehitxo auto baten baitan kabitzeko. Hibridoa bada ere.

Berria, 2017-06-18/Andoni Egaña

1- Zer gertatu zitzaion Andoni Egañari?

- Adi jarri zen, kritika politiko sakona eginen zuen telebista saio bat entzunen zuelakoan.
- Iragarki bat ez zitzaion auto hibrido bat saltzeko egokia iruditu.
- Pentsatu zuen jendeari zeremonia handiko iragarkiak gustatzen zaizkiola.

2- Zein ez da zuzena?

- 80 bat urte pasatu dira Errepublikaren garaiko hauteskundeak egin zirenetik.
- 1977koak izan ziren estatu espainiarrean egindako lehen hauteskunde demokratikoak.
- Franko hil zenetik, 1977ko hauteskundeak izan ziren lehenak.

3- Zer dio Andoni Egañak memoriaren inguruan?

- a. Oso memoria txarra duela, horregatik begiratu behar izaten duela Wikipedian.
- b. Batzuetan ezin garela gure memoriaz fidatu, erabat malgua delako.
- c. 1977ko hauteskundeetan garaiko oroitzapenak buztinaz zikindutako zerbaitez bezala gogoratzen dituela, oroitzapen garbirik ez duelako.

4- Zein da zuzena?

- a. 1977ko hauteskundeetan, oraingoetan bezala, langile askok hartu zuen parte.
- b. Orain ere, parte hartze handia lortzearren, astegunetan egin beharko genituzke hauteskundeak.
- c. 1977ko hauteskundeetan parte handia izan zen, nahiz eta astean zehar egin ziren.

5- Zein da zuzena?

- a. 1977ko hauteskundeak historiako demokratikoenak izan ziren %79k parte hartu zuelako.
- b. 1977ko hauteskundeak egin zirenean, Juan Carlos erregea trebea izan zen herritarrek aukeratutako senatariak izendatzean.
- c. 1977ko hauteskundeetan herritarrek ez zuten senatuko partaide guztiak aukeratzeko modurik izan.

6- Zein da zuzena?

- a. 1977ko hauteskundeetan alderdi komunistak ongi izerditutako boto kopurua lortu zuen.
- b. 1977ko hauteskundeetan Frankoren ingurukoak izan ziren garaile.
- c. 1977ko hauteskundeetan PSOE bigarren indarra izan zen, behin eta berriz adierazi baitzuen Francoren politikaren kontrakoa zela.

7- Zein da zuzena?

- a. 1977ko hauteskundeetan Bizkaian eta Gipuzkoan, ongi merezita, PNV-EAJ alderdiak lortu zituen boto gehien.
- b. 1977ko hauteskundeetan bazen botoa ez ematearen aldeko jarrerarik ere.
- c. 1977ko hauteskundeetan emaitzak herritar guztiak ase zituen, klandestinitatean lan egiteko garaia atzean utzi zelako.

Erantzunak:

1	2	3	4	5	6	7
A	B	B	C	C	B	B

IDAZMENA

1. Ariketa. Idatzi gutuna laguntza eskatzeko (150 hitz).

Egoera:

Zure etxean igogailua jartzea erabaki dute bizilagunek. Zu langabezian zaude eta ezin duzu ordaindu.

Egitekoa:

Idatzi eskutitza kontsumitzaileen elkarteari aholkuak eta irtenbideak eskatzeko.

Nahitaez eman beharreko informazioa:

- eman zure egoeraren berri
- eskatu konponbidea
- galdetu diru-laguntzarik ba ote den

2. Ariketa: Idatzi iritzi-artikulua herriko aldizkarian argitaratzeko (150 hitz).

- Egoera kontuan hartu eta gaiari buruz daukazun iritzia azaldu behar duzu: zure ideiak garatu eta lotu. Lagungarri gisa ematen dizkizugun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

EGOERA:

Duela gutxi enpresa multinazional batean hasi da lanean zure lagun-min bat, emakumezkoa bera. Ardura handiko lana du, baina lan horren truke ez du gizonezko lankideek adinako soldata jasotzen, nahiz eta lan bera egin.

Soldaten arteko desberdintasun horrek gogoeta eragin dizu, eta herriko aldizkarian iritzia idaztea erabaki duzu.

GAIA: LAN BERA, SOLDATA BERA?



Europako Batzordearen datuen arabera, emakumeek, batez beste, gizonek baino %16,4 gutxiago irabazten dute lan bera eginda.

Islandian legeak agintzen du lan bera edo balio bera duen lana egiteagatik gizon eta emakumeek soldata bera izatea

AHOZKOA

Bakarrizketa:

Gaixoak, gu

Eguna zabaldu baino lehen utzi dut oheko epela, eta etxetik bertan dagoen bidegorrira abiatu naiz argia noiz eta nondik azalduko ote den neure buruari galdezka.

Urrutira itzal bat korrika txikian datorrela iruditu zait. Gerturatzean, motots dantzaria salatari, konturatu naiz neska bat dela. Ikusi nauenean pausoa mantsotu du, mobila patrikatik atera, eta norbaitekin berriketan ari den plantak egin ditu. Ia nire parera iritsi denean "bidegorrian nabil, Okerkua baserriaren parean", bota du ozen, eta segidan, pausoa nabarmen bizkortu. Atzera utzi nauenean lasaitu ederra hartu duela uste dut.

"Gizarte hau gaixorik dago kiroltik ere lasai egin ezin badute", pentsatu dut.

Agian, pentsatzen ariko zarete emakumeentzat hain ohikoak diren egoerak oraindik norbait harritzea oso seinale txarra dela. Agian, bai. "Gizarte hau gaixorik dago". Gu geu ez bagina bezala gizarte harremanak sortzen eta mantentzen ditugunok; inposaturik eman zaigun zerbait balitz bezala, gutaz haragokoa; gizartea gaixorik egoteko guk ezer egin ez dugulakoan.

Hogeita bost urte luze egin ditut, ofizioa eta afizioa uztartuz, kirol kontuetan murgilduta. Zenbat aldiz entzun dut -bake santuak gehiago balio duelakoan, nire partetik erantzunik izan gabe- emakumeen aurkako komentario iraingarririk? Zenbat aldiz aritu naiz lasai ederrean emakumeen kirol maila gutxietsi duten antolatzaileekin solasaldian? Aipatu al diet inoiz nire desadostasuna emakumeak baztertzen dituztelako tradizio eta ohitura aldaezinen babesean? Sarri isiltasuna konplizeagoa da hitz gogorrena baino.

Noiz aipatu ote dut jende aurrean bi generoz hitz egitea errealitatearen parte handi bat baztertzea dela? "Generoa" kontzeptuak multzokatu egiten gaituela, lotu eta mugatu, eta, agian, norbaitek ez duela gizarteak ezarritako puzzlearen pieza soila izan nahi.

Gizonezkoen kirolak ikusi ditut, gizonezkoenak soilik, hiztegi eta arau maskulinoak dituztenak; ez kirol lagun, ez aurkari, emakumeak ondoan nahi ez dituzten usteko kirolari eta jarraitzaileak. Eta ondoan nahi ez dituenak, sarri, aurrean izaten ditu baztertu nahi izan dituen haiek.

Bidegorrian, telefonoz hitz egiteko itxura egin zuen korrikalariak hau irakurri badu, seguruenik pentsatuko du: emakumeok kirolean ere ditugun beldurrez aritu behar, eta protagonista, orain ere, bere burua jarri du. Gizonezkoek ez dute erremediorik!

Koldo Aldalur. Argia, 2020ko martxoaren 8a

Azaldu:

- Zer dio testuak?
- Zergatik da ohikoa beldurra sentitzea emakumeentzat eta harrigarria gizonezkoentzat? Zer ondorio ekartzen du horrek?
- Zer hausnarketa eragin dizkio bidegorrian gertatutakoak? Zer iruditzen zaizkizu?

Iritzia eman:

- Ohikoa iruditzen al zaizu Koldo Aldalurren jarrera? Zergatik?
- Zer egin beharko litzateke emakumeek beldurra sentitzeari utz diezaioten?
- Gizonezkoek erremediorik ez dutela iruditzen zaizu?
- Zer aurrerapen sumatzen duzu gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako bidean?

Elkarrizketa:

TURISMOA HANDITZEA ONA OTE?

Egoera:

Gero eta turista gehiago sumatzen dira bazterretan. Horren adibidea da, esaterako, Baztan: batzuk Dolores Redondoren liburuek erakarri dituzte, besteak hainbat pelikularen arrastoaren atzetik...

Donostian ere kezka handia dago gai honen inguruan eta Mediterraneoko zenbait tokitan, zer esanik ez.

Zer pentsatua ematen du gaiak, gehienok garelako turistak uneren batean eta ikusten ditugulako turismoaren eraginak.

Egitekoa:

Mintzatu zuen artean:

Zer alde on eta zer alde txar ikusten dizkiozue turismoari?

Nolako turismoa komeni da?

Lagungarriak, badaezpada:

- Masifikazioa, garestitzea, espazioen eta ohituren eraldaketa
- Pisu turistikoen afera, gentrifikazioa...